



Prestakuntza bekak
Gondra Barandiarán
Arte Ederren Bilboko Museoa

2024-2025

Deialdia eta helburua

Gondra Barandiarán Fundazioak eta Arte Ederren Bilboko Museoa Fundazioak (aurrerantzean, museoa) gazteentzako prestakuntzako zazpi bekatarako deialdia egiten dute, museoko hainbat arlotako prestakuntzarako, gaitasun berriak eskuratzeko eta prestakuntza-garaian hartutako ezagutzak garatzeko aukera emateko, museoko profesionalen laguntzarekin eta lan-ingurunearekin harremanetan egonda.

Programa egiteko, ezinbestekoa izan da Gondra Barandiarán Fundazioaren babesa. Fundazioaren helburua, besteak beste, jarduera zientifikoak, teknikoak, artistikoak eta kulturalak bultzatzea, garatzea, babestea eta sustatzea da, prestakuntzarako laguntzak emanez eta pentsamendua sortzea bultzatuko duten jarduerak programatuz.

Programaren baldintzak

Iraupena

Programa 2024ko urriaren 1ean hasiko da, eta bederatzir hilabeteko iraupena izango du. Museoak erabaki ahal izango du emandako beka batzuk edo guztiak luzatzea, beka jaso dituzten pertsonekin adostu ondoren. Bekaren iraupen osoa ez da hamar hilabete baino luzeagoa izango.

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Oporrak

Oporraldia egun hauen artean izango da: 2024ko abenduaren 26tik 2025eko urtarrilaren 5era, eta 2025eko apirilaren 14tik 20ra arte. Horrez gain, EAEko 2024ko eta 2025eko lan-egutegietako jaiegunak hartuko dira, eta bekadunek norberaren aukerako bi egun izango dituzte, programak irauten duen bitartean nahi duten unean hartzeko, aurrez museoari jakinarazi eta haren baimena jaso ondoren.

Bestelako baimenak edo ez-etortzeak tutoreak baimendu beharko ditu, eta museoak Giza Baliabideen Sailari jakinarazi.

Oinarri juridikoa

Programan parte hartzeak ez du inola ere lan-harremanik sortuko bekaren onuradunaren eta museoaren artean. Hortaz, harremana egituratzeko, bi aldeek akordio pribatu bat sinatuko dute.

Beken onuradunei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko mekanismoak aplikatuko zaizkie programak irauten duen bitartean, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuari jarraikiz. Horretarako, museoak ezinbestean sartu beharko ditu Gizarte Segurantzaren beken titularrak, eta programari dagozkion kotizazioak egin beharko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian.

Diru-zuzkidura

500 euro gordin hilean. Museoak hilero kenduko ditu indarreko legeriak ezartzen dituen zenbatekoak.

Bekaren esleipendunari ordaintzen zaion kopuruak ez du izango inola ere soldata- edo ordainsari-izaera.

Museoak istripu-aseguru bat kontratatuko du, gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, bai eta erantzukizun zibileko aseguru bat ere, programak irauten duen bitartean gauzei edo pertsoneri eragin ahal zaizkien kalteak estaltzeko.

Deialdiaren iraupena

2024ko maiatzaren 24tik ekainaren 16ra. Egun horietatik kanpo jasotako eskabideak ez dira onartuko.

Baldintza orokorrak

- › Beka-aldia hastean, kasu bakoitzean eskatzen den titulazioa bukatuta izatea.
- › 1994ko urtarrilaren 1etik aurrera jaioa izatea.

Eskabideak formalizatzea

Museoaren webgunean (**hemen**) horretarako prestatu den online inprimakiaren bidez beteko dira eskabideak.

Hautagaiek arlo batean baino ezin izango dute eman izena, eta museoak izango du ahalmena, interesduna informatu eta haren baimena izan ondoren, haren hautagaitza beste sail baterako baloratzeko, beharrezkotzat jotzen badu.

Dokumentazioa

- › NANA edo agiri baliokidea.
- › *Curriculum vitae*.
CVan hizkuntzak dakizkitela adierazten dutenek hizkuntza-erakundeek edo hizkuntza-eskola ofizialek egindako dagozkion ziurtagiriak edo baliokideak ere aurkeztu beharko dituzte.
- › Espediente akademikoa (batez besteko nota adierazi beharko da).

Artxibo bakarra bidaliko da, PDF formatuan. Museoak edozein unetan eskatu ahal izango ditu, beharrezkotzat jotzen badu, adierazitako dokumentuen jatorrizkoak.

Kontsultak egiteko edo zalantzak argitzeko, jarri harremanetan honekin:

Giza Baliabideak (tel.: 94 439 60 60)

Hautatzeko prozesua

Hautatzeko prozesuaren aurretiazko fasean, museoak behar bezala zainduko du oinarrietan ezarritako eskakizun orokorrak eta bereziak betetzen direla. Eskatutako dokumentazioa finkatutako epearen barruan aurkezten ez duen hautagaiari eskatu ahal izango zaio hiru egun baliodunetan akats hori zuzendu dezan. Epe hori igarotakoan ez badu aurkeztu, automatikoki baztertua izango da.

Aurrehautaketa hori egin ondoren, eskabideen balorazioak 50 puntu izango ditu gehienez, eta jarraian adierazitako faseak eta puntuazioak izango ditu. Museoak irizpideak interpretatzeko ahalmena izango du, betiere, arlo edo sail bakoitzaren zehaztapenak kontuan izanda, eta irizpide orokorretan finkatutako mugak betez:

Lehenengo fasea: 30 puntu

Hautagaiaren curriculumak, espediente akademikoa eta gaitasunak baloratzea.

Bigarren fasea: 20 puntu

Bakarkako elkarrizketa; gutxienez 3 eta gehienez 5 pertsonari egingo zaie elkarrizketa beka bakoitzeko, eta lehen fasean puntu gehien eskuratu dituztenak izango dira pertsona horiek. Museoa zuzenean jarriko da harremanetan bigarren faserako hautatu diren pertsonekin. Gainera, museoak hautatuen zerrenda bat argitaratuko du webgunean (**hemen**), elkarrizketaren eguna eta ordua adierazita dituela.

Ebazpena

Hautaketa-fasea amaitu ondoren, museoak titularren eta ordezkoen zerrenda prestatuko du, programaren iraupen-aldian hasieratik edo bat-batean izandako ukoak betetzeko, eta museoaren webgunean emango du argitara (**hemen**), 2024ko uztailaren 22tik aurrera.

Jarraian, museoak hautatuak izan diren pertsonen jakinaraziko die ebazpena, eta, era berean, beken esleipena bete gabe utzi dela jo ahal izango du, erabat edo era partzialan.

Bateraezintasunak

Beka hauek prestakuntza-izaera hutsekoak dira, eta bateragarriak dira ordaindutako bestelako lanekin nahiz beste erakunderen batek emandako bekekin, bidaia-poltsekin edo laguntza ekonomikoekin, betiere, beka finkatutako ordutegian eraginik ez badu.

Beka behin bakarrik jaso ahal izango da.

Ezin izango dira beka honetara aurkeztu beka hau edo museoan aurretik izandako prestakuntzarako beste bekaren bat jaso duten pertsonak.

Betebeharrak

Hautatutako pertsonen idatziz onartu beharko dute beka, eta, horretarako, mezu elektronikoa bat bidali beharko dute adierazten zaien helbide elektronikora, bost egun naturaleko epean, museoak beka eman diela jakinarazten dienetik hasita. Beka ezarritako epearen barruan onartu ezean, uko egiten diotela ulertuko da, eta ordezkoren zerrendan agertzen den hurrengo pertsonari emango zaio.

Beka onartzeak oinarri hauetako klausulak onartzea dakar, eta akordio pribatua sinatu beharko da museoarekin, zeinaren bidez honako betebeharrak hauek ere onartzen baitira:

- › Konfidentzialtasunari buruzko konpromisoa sinatu beharko dute museoarekin.
- › Baimena emango diete Gondra Barandiarán Fundazioari eta museoari, haien izena haien webguneetan eta memoriatan ager dadin.
- › Bekadunek hitz emango dute programan zehaztutako zereginak eta tutoreari egoki iruditzen zaizkion jarduerak beteko dituztela.

- › Berariaz bete beharko dituzte laneko higie eta segurtasuneko arauak, berehala bete beharrekoak baitira, haien osotasun fisikoan eta museoan zerbitzua ematen duten pertsonen osotasunean eragina dutelako.
- › Oinarrietan finkatutako ordutegia bete beharko dute.

Programaren garapena

Kasuan kasuko sail edo arloko arduradunak gainbegiratuko du jardueraren garapena; hark bekadunen tutoretza eta jarraipena egingo du, eta, programa bukatu ondoren, azken txostena prestatuko du.

Era berean, bekadunek azken memoria prestatu beharko dute.

Bi dokumentu horiei esker, museoak ziurtagiria egin ahal izango die bekadunei, programako helburuak bete dituztela egiaztatzeko.

Beka deuseztatzea

Bekadunak aurrez adierazitako betebeharrak betetzen ez baditu, museoak eskumena izango du bekaren baliatze-aldia amaitutzat emateko. Horrek ez du eragotziko egokiak izan daitezkeen bestelako ekintzak egin ahal izatea.

Ez-bertaratze oro justifikatu beharko da. Ez-bertaratzea zerbitzu medikoek halakotzat jotako aldi baterako ezintasun baten ondorio bada, eta 35 egun baino gehiagoan ez bertaratzea eragiten badu, beka deuseztatu egingo da.

Aldi baterako ezintasunaren ondorioz beka deuseztatzen bada, bekadunak lehentasuna izango du hurrengo beka-programako beka jasotzeko, baldin eta ez bada programaren % 50 baino gehiago igaro, eta ematen den egunean hura lortzeko gainerako baldintzak betetzen baditu.

Bekadunak uko egin ahal izango dio bekari, indarrean dagoen bitartean, baina aurrez museoari

jakinarazi beharko dio, gutxienez 15 egun lehenago. Uko egin ez gero, eten egingo dira bekaren diru-kopurutik ordaindu gabe dauden hileko ordainketak. Bestalde, programaren iraunaldiaren % 50 gaitu ondoren uko egin ez gero, museoak ez du plaza bete beharrik izango.

Oinarriak aldatzea

Museoak oinarri hauek aldatzea erabaki ahal izango du, eta, ondorio horretarako, nahikoa izango da bere webgunean (**hemen**) argitaratzea.

Deialdian ateratako plazak

Artxiboa eta Dokumentazioa

Museoaren funts artistikoa eta haren jarduerak kudeatu, zaindu, sailkatu eta ezagutzera emango ditu.

Helburua

Parte hartzea funts artistiko eta dokumentaletako datu-baseen berrikuspenean eta eguneraketan, dokumentu-kudeaketari dagozkion zereginetan, eta Arteder-Ezagutzaren proiektu digitalaren garapenean.

Baldintzak

Lizentziatura edo gradua Artearen Historian, Arte Ederretan, Ikus-entzunezkoetan, Humanitateetan, Dokumentazioan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- › Euskara, ingelesa eta frantsesa jakitea eta egiaztatzea.
- › Datu-baseak kudeatzeko, funts dokumentalak sailkatzeko eta artxibatzeke eta digitalizatzeko ezagutzak izatea.
- › Argazkilaritzako, ikus-entzunezko medioetako eta irudien tratamendu digitaleko ezagutza.

Liburutegia

Artearen historian eta museoaren bilduma eta jardueretan espezializatutako funts bibliografiko eta dokumentala kudeatu eta hedatzen du.

Helburua

Dokumentu-funtsak kudeatzen, Euskal Artisten Datu-basea berrikusten eta eguneratzen, Arteder ezagutzaren proiektu digitala garatzen eta liburutegi-zerbitzu orokorretan parte hartzea.

Baldintzak

Lizentziatura edo gradua Informazio eta Dokumentazioan, Artearen Historian, Humanitateetan, Arte Ederretan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- › Euskara eta ingelesa jakitea eta egiaztatzea.
- › Dokumentuen katalogazioko ezagutzak, hainbat euskarritan.
- › Informazioa kudeatzeko sistemen ezagutzak; bereziki, Liburutegiak Kudeatzeko AbsysNET Sistemarena.
- › Dokumentuak digitalizatzeari buruzko ezagutzak.

Kuratoretzak

Funts artistikoaren ezagutzaz arduratzen da, haren alderdi estetiko, tekniko eta dokumentalei dagokienez.

Helburua

Parte hartzea funts artistikoen dokumentazio- eta ikerketa-zereginetan, erakusketa-proiektuetan eta diskurtso museografikoen zehaztapenean, baita Arteder-Ezagutzaren proiektu digitalaren garapenean ere.

Baldintzak

Lizentziatura edo gradua Artearen Historian, Arte Ederretan, Ikus-entzunezkoetan, Humanitateetan, Dokumentazioan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- › Euskara eta ingelesa jakitea eta egiaztatzea.
- › Museologiako graduondoa edo masterra, edo antzekoa.

Edizioa

Bere gain hartzen ditu museoak argitaratzen dituen edukien zati handi baten edizioa eta inprimatutako argitalpen guztien kudeaketa integrala: aldi baterako erakusketen katalogoak, gidaliburuak, etab. Baita haren jarduerarekin zerikusia duten zenbait inprimaki eta euskarri digital editatu, diseinatu, maketatu eta ekoiztea ere. Gainera, argitalpenen alorreko laguntza eta laguntza grafikoa ematen die beste sail batzuei. Azkenik, identitate bisual berria garatzeaz eta aplikatzeaz arduratzen da.

Helburua

Museoaren argitaratze-jarduerarekin lotura duten zereginetan parte hartzea; bereziki, Arteder, bere ondare artistiko eta dokumental zabalera sarbidea emango duen ezagutzaren plataforma digital berria plazaratzearekin zerikusia dutenetan. Horretarako, zorrotz berrikusi beharko dira datu-baseetan dauden testuak, zuzentasun ortotipografikoaren eta normalizazioaren irizpideak erabiliz, museoaren estilo-eskuliburuaren arabera.

Baldintzak

Filologian, edo Humanitateen arloko titulazio analogoetan, Lizentziatura edo Gradua.

Baloratuko da

- › Euskara eta ingelesa jakitea eta egiaztatzea.
- › Graduondokoa edo masterra izatea edizioan edo antzeko titulazio batean eta/edo testuen zuzenketako prozesuen ezagutza.

Hezkuntza

Jarduera eta programa didaktikoak abiaraziko ditu, gehienbat museoko bilduma iraunkorraren eta aldizkako erakusketen ezagutza sustatzeko, eta ahalik eta ikusle-mota gehienengana helarazteko.

Helburua

Museoaren Hezkuntza Programa egiteko eta garatzeko faseetan parte hartzea: proiektua sortzen denetik martxan jarri arte; jardueren txostenak egin eta inplementatzea, eta jardueren eragina neurtzea (inkestak hustea, jardueren jarraipena egitea eta gauzatzea, eta azken ebaluazioa).

Baldintzak

Lizentzia edo gradua Artearen Historian, Arte Ederretan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- › Euskara, ingelesa eta frantsesa jakitea eta egiaztatzea.
- › Graduondoa edo masterra, hezkuntzaren edo/eta komunikazioaren alorrean.
- › Irudiak eta datu-baseak aurkezteko eta haien tratamendu digitalaz arduratzeko tresna informatikoei buruzko ezagutzak.

Erregistroa eta Erakusketak

Moldatu, mugarritu eta kudeatu egingo du museoko funts artistikoa, eta, orobat, dokumentu- eta argazki-artxiboa, bildumako artelanen erregistroa eta inbentarioa, eta haien mugimenduen kontrola egingo du. Museoko aldi bateko erakusketen programa kudeatuko du: zehaztu, lankidetzaz-hitzarmenak egin, maileguak koordinatu, aseguruak eta garraioa, komisarioak koordinatu, dokumentuak kudeatu, kudeaketa ekonomikoa egin eta muntaia teknikoki koordinatu.

Helburua

Bildumaren erregistroaren kudeaketari eta obren mugimenduen kontrolari dagozkion zereginetan parte hartzea, erakusketa-proiektuak dokumentatzea, eta aretoko muntatzeak eta argazki-saioak antolatzea.

Baldintzak

Lizentzia edo gradua Artearen Historian, Arte Ederretan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- › Euskara eta ingelesa jakitea eta egiaztatzea.
- › Graduondokoa edo masterra museologian edo antzeko zerbaitetan.
- › EMSIME datu-baseen ezagutza.

Zerbitzu orokorrak

Museoko zerbitzu orokorrez eta azpiegiturez arduratuko da, esate baterako, barneko zerbitzuez, erakusketak muntatzeko eta desmuntatzeko lanez, artelanak manipulatzeko eta mugitzeaz, eraikinaren eta haren azpiegituren mantentze-lan prebentiboez eta zuzengarriez, argiteriaz, sistemez eta segurtasunaz.

Helburua

Museoa handitzeko eta eraberritzeko lanen prozesuan parte hartzea, eta, orobat, erakusketen espazioak eta azpiegiturak diseinatzeko zereginetan, aretoen muntatze- eta desmuntatze-lanetan, eta planoak egiten eta berrikusten parte hartzea.

Baldintzak

Lizentzia edo gradua Arkitekturan, Arkitekturaren Oinarrietan edo antzeko titulazioetan.

Baloratuko da

- › Euskara eta ingelesa jakitea eta egiaztatzea.
- › Ezagutzak edo graduondoko edo masterreko ikasketak izatea erakusketen diseinuaz eta muntaketaz, museografiaz eta/edo kultura-ondarearen kudeaketaz, edota antzeko titulazioen bat.
- › Eraikinen edo espazioen planoen marrazketa digitalerako eta/edo irudiak 3D-n birsortzeko edizio softwarea ondo ezagutzea.

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

Museo plaza, 2. 48009 Bilbao
info@bilbaomuseoa.eus
www.bilbaomuseoa.eus